

## JANGELA ZERBITZUA - 2019-2020 ikasturtea

Ikasturte honetako kuotak honakoak izango dira:

• <b>Ohiko bazkaltiarrek (egun 1 astero)</b>	<b>4,60 euro eguneko</b>
• <b>Garraio eskubidea duten ohiko bazkaltiarrek</b>	<b>3,30 euro eguneko</b>

### FUNTZIONAMENDUA

- **ARAUAK:**

Jangela ikastetxeko zerbitzu osagarria dugu. Gure ikastetxea Eusko Jaurlaritzak agindu eta zirkular bidez betearazten dituen arauen arabera funtzionatu behar du.

  - Ohiko bazkaltiar trataera, honakoak bakarrik izango dute: Jankideak onartzeko epean eta ikasturte osoan, astean gutxienez EGUN BATEAN (beti asteko egun berdian) erabiltzen dutenak.
  - Bazaltiarren batek ez badu kuota ordaintzen jangela plaza galduko du.
  - Goizetik gelara etortzen ez den ikaslea (gaixotasunagatik edo beste arrazoi batengatik) eguerdi horretan ezingo da jangelara etorri bazkaltzera.
- **MENUAK:** Denek menu berdina izango dute honako salbuespenekin.
  - Intolerantziak, alergiak eta gaixotasuna duten ikasleek espezialistaren txosten mediku ofiziala ekarri beharko dute. Baita ezbeharren bat gertatuz gero jarraitu beharreko protokoloa ere.
  - Menu obolaktobegetarianoa eta musulmana.
  - Obolaktobegetarianoa arrainarekin.
- **KUOTAK:**
  - Urte guztiko kuota 10 hilabetetan banatuta kobratuko da.
  - Kuota itzultzea: Jankidea ez bada dagokion egunetan jantokira joan behar, eta beti ere, gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada, kuotaren erdia (%50a) itzuliko zaio.